

D e n a d u n a

Karmele Mitxelena*

Urtarrilaren hotzarekin batera iritsi zen mundura, egutegiaren lehendabiziko orrialdeak 29a borobiltzen zuenean. Orduan egin zuen bere lehen kantua, bere lehen negar melodikoa. Izena ipini zionak nonbait antzeman zion jaioberri hari sortzaile handia izango zela, Sorkunde ipini baitzion, Sorkunde Rubio Ansotegi. Eta hala izan zen, gutxitan utzi dio sortzeari ordutik, ez zen isilik egoteko sortutako ahotsa izan. Etxekoentzat, Sorkun; lagunentzat, Sorkun; herrikoentzat, Sorkun; ezezagunentzat, Sorkun; eta munduarentzat, Sorkun.

Erreterian hazi zen, eta kalean hezi. Etxean ez zuen euskara ikasteko aukerarik izan, baina nerabazarora iritsi orduko euskaltegian izena eman zuen, kaleak ostu ziona Aek-n berreskuratu nahian. Honela sortu zituen euskararekiko lehen lazoak, geroztik, estuago batzuetan, lasaiago besteetan, baina inoiz askatu ez dituenak.

1995. urtea zen eszenatoki gainera lehenengoz igo zenean. 17 urteko neskatila bat baino ez zen orduan, eta iada *Kashbad* taldeko abeslaria zen. Bere ibilbide musikalaren hasiera izan zen, hasiera arrakastatsua, taldekideak ez ezik, entzulea ere liluraturik uzten baitzuen bere eztarritik irteten zen nota bakoitzak. Pixkanaka, herrian nahiz herritik kanpo, taldea ezagun egiten hasi zen; horren adibide garbia da, denbora tarte

laburrean hiru disko grabatu zituela. 1996an ikusi zuen argia lehenengoak, "*Kashbad*", taldearen izen bera zeramanak. Berehala, urtebetera "*Distantzia*", bigarren diskoa kaleratu zuten, 1997a bikain amaituz. Eta 1999an, "*Hesiak*" iritsi zen, hirugarren eta azken diskoa izango zena.

Fermin Muguruza *Kashbad* taldearen maketa entzun orduko maitemindu omen zen abeslariaren ahotsarekin. *Negu Gorriak*-en "*Nire baitan daude begiak*" kanturako ahotsak egiteko eskatu zion, eta baita egin ere. Beste askoren artean, Joxe Ripiau eta Flitter talde ezagunekin kolaborazio lan ugari eginez aritu zen. Fermin Muguruzak Kontrabandan koruak egiteko proposamena luzatu zionean ere ezin izan zion ezetzik eman, horren kontzertu eta disko ezberdinetan parte hartuz. Kontrabandarekin egindako birak berebiziko garrantzia izan zuen baina, orduan abiatu baitzen bere bakarkako ibilbidearen prestakuntza. Ordurarte ahotsaz soilik arduratzen zen arren, bira honetan egindako bidaia ezberdinetan zehar bere lehen diskoa izango zenaren zenbait letra idazten hasi zen.

Benetan desio duenak lortzen duela diote, eta berak desiatu eta lortu egin zuen. 2002. urtea, urte handia izan zen. Gizonezkoz betetako mundu batean bere bakarkako lehen lana kaleratu zuen "*Onna*" izenburupean, japonieraz emakume

* Mariasun Landa kazetaritza-lanen II. edizioa "Emakumezkoen begirada onena" modalitatean saritutako lana. Antolatzailea: Erreterriako Berdintasun Kontseilua.

esan nahi omen du. "Onna" diskoa, eta ona diskoa. Gogorra, benetako rockaren sinonimoa, baina *onna*. Hiru urte beranduago, 2005. urtean iritsi zen "*Duna*", bakarkako bigarren lana. Bere hitzetan izenburuak basamortuko dunari ez ezik, "duena" hitzari ere egiten dio erreferentzia. Musika elektronikoagoaren alde egin zuen apustu disko honetan. Betiko estilotik pixka bat urundu zen arren, entzuleak gustora hartu zuen aldaketa izan zen. Azkenik, 2008an, "*Sorkun & Vice Presidentes*" kaleratu zuen, taldeko gidari bera zela. Kantu hauetan bere jarraitzaileei rock ohikoago bat eskaini zien, garai zaharrei men eginez.

Sei, sei dira guztira grabatutako diskoak, bada gutxiago egin duenik. Azkenaldian, bere abestirik ezagunenekin ari da lanean, abesti zaharrekiko erreperitorio akustiko berri bat osatu nahian. Oraingo honetan, musika, laguntzaile bat baino ez da izango, ahotsa bihurtuko da kantuen benetako protagonista nagusia. Soinu intimistago bat lortu nahi du, rock goxoago bat, baina rocka beti.

Sorkun ahots bat baino gehiago da, errenteriarren urguilua da, belaunaldi zahar nahiz berrien urguilua, etorkizunerako urguilua; "hi haizela heu" herriaren urguilua. Rocka, euskara, *onna*, ausardia, indarra, dena duna bakarra da munduan, eta Sorkun da hori, rock emakumetuaren sortzailea. "Sortu, sortu, sortu" dio bere abesti batean; eta guk, "sortu, sortu, sortu" eskatzen diogu, entzuten jarraitu nahi duten belarrien gozamenerako.

